


VILLA ANA MARÍA
D MAILA

LA FE PASEALEKUA 12-14-16



Migel Irastortza, 1903

Deskribapena

La Fe pasealekuko bi koten artean kokatutako bigarren villa da, eta bi bideen arteko zabalera osoa hartzen du. Beheko kotatik kontaktzen hasita, lokalez osatu beheko solairua dauka, goitegia, lehen solairua, eta bigarren eta hirugarren solairuak goiko bideko sestratik gora dira. Ertzeko dorrea laugarren solairuraino iristen da. Geroago jasodura erantsi bat egin zuten lehengo estalki inklinatuaren ordez. Desnibelean duen kokapena La Fe kare hidroliko fabrika zaharrak eduki zuen lurraren kontrako murruearekin dago lotuta; izan ere, aipatu fabrika eraitsi egin zuten eremu honen garapena ahalbidetzeko. Fatxadek ordena klasizista dute balkoiatarako ate-leihoen antolamendu erregularrean eta proportzioetan, eta beheko solairuko lokaletako arku sailean. Alde handia dago harrizko aparailu kuxindueen imitazio gisako horma-atal itsuen eta azpadura, inposta eta kantoietako moldurazioaren artean. Dorrea eraikinean txertatuta dago erabat, fatxadetako lerrokadurak errespetatzen ditu une oro, eta bakar-bakarrik altueran nabarmentzen da. Estrategikoki dago angelurik garrantzitsuenean kokatuta, eta Mirakontxatik La Fe pasealekuan gora egiten den bidean ikusten den lehenbiziko elementua da.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: laugarren solairuko jasodura.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak, morterozko moldurak, balkoiatarako burdin lanak eta dorreko estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.